

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

1.704 langabe gutxiago izan da Nafarroan maiatzean

41.175 pertsona daude lanik gabe, duela urtebete baino % 7,84 gutxiago

Osteguna, 2016.eko ekainak 2

1.704 langabe [gutxiago erregistratu](#) dira Nafar Lansarean maiatzean (-% 3,97); hala, 42.879 langabe zeuden apirilean, eta 41.175, maiatzean. Termino absolutuetan, 2008. urtetik maiatzean izan den jaitsiera handiena izan da, eta Espainiako batez bestekoa baino jaitsiera handiagoa (% 2,99).

2015eko maiatzarekin alderatuz ere, langabe-kopuruak [behera](#) egin du, 3.501 gutxiago zehazki. Hau da, % 7,84ko jaitsiera da –portzentajetan krisia hasi zenetik maiatzean izan den bigarren handiena– aurreko urtearekin alderatuz (44.676 pertsona zeuden erregistratuta orduan). Urteko terminoetan, langabeziaren jaitsiera hori Espainiakoa baino handiagoa da (% 7,86).

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak azpimarratu duenez, datu horiek azken hilabeteotako joera positiboa baieztatzen dute, eta enpleguaren politika aktiboarekin jarraituko duela esan du, langabeziaren egungo tasak murrizten jarraitzeko eta kalitate handiagoko enplegu bat sortzeko asmoz.

Gizarte Segurantzako [afiliatu](#)en datua bereziki positiboa da: 3.698 gehiago maiatzean, % 1,42, 2008ko maiatzetik, bigarren onena. Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak, halaber, urteko datua nabarmendu du, hau da, Gizarte Segurantzaren 6.517 pertsona gehiago afiliatu direla (2,53), eta "horrek erakusten du enplegua erritmo onean sortzen jarraitzen dela". Horri kontrajarriz, "aipagarria da oraindik beharrezkoa dela ia 23.000 enplegu sortzea krisi ekonomikoaren aurreko zifretara iristeko".

Kontratazioa

Kontratazioari dagokionez, Foru Komunitateko lantokietako kontratukopuruari dagokionez, 30.633 erregistratu ziren Nafar Lansarean. Hau da, 3.034 [gehiago](#) (% 10,99) aurreko hilarekin alderatuz eta 4.332 gehiago (% 16,47) 2015eko maiatzarekin [alderatuz](#).

Tipologiaren arabera, kontratazioa mugagabea % 11,86 jaitsi zen aurreko hilaren aldean (208 kontratu gutxiago), nahiz eta % 31,13 igo iazko maiatzaren aldean (367 kontratu gehiago). Horrek esan nahi du kontratu mugagabeak guztien % 5 izan zirela, duela urtebeteko zifra baino pixka bat handiagoa (% 4,48). 2016ko urtarriletik maiatza bitarteko hilabeteak erreferentziatzat hartzen baditugu 2015eko epe berarekin alderatuz, kontratazio mugagabea % 19 handitu da; datu oso positiboa da hori, eta enpresek beraien etorkizunean zer konfiantza duten erakusten

du.

Datuak xehatuta

Enplegu-agentzien arabera, langabeziak guztietan egin du behera: Lodosan (-% 9,21), Agoitzen (-% 6,79), Tuteran (-% 5,95), Donezteben(-% 5,83), Lizarran (-% 4,02), Tafallan (-% 3,66), Arrotxapean (-% 3,14), Yamaguchin (-% 2,94), Zabalgunean (-% 2,80) eta Altsasun (-% 2,56).

Sexuaren arabera, 23.091 emakume lanik gabe zeuden (kopuru guztiaren % 56,08), % 3,27 jaitsiz (781 emakume gutxiago), eta 18.084 gizon (kopuru guztiaren % 43,92), % 4,86 jaitsiz (923 gizon gutxiago) aurreko hilarekin alderatuz. Hileko aldaketa erlatiboak, 2016ko apiriletik maiatzera, gizonen langabezia emakumeena baino 1,59 gehiago jaitsi dela erakusten du.

Halaber, urteko aldaketa aztertzen bada, langabeziaren banaketa desberdina izan dela ikusten da. Urtebetean gizon langabeen kopurua % 9,96 jaitsi da, emakume langabeak, berriz, % 6,10. Sexuaren araberako bereizketa honetan, emakumeentzako alde positibo bat dago: jaitsiera hori izandako handiena dela aurreko urteko hil berarekin alderatuz eta krisia hasi zenetik, baina bistan da gizon eta emakumeen arteko tartea murrizteko ahalegin bat egin behar dela.